



”Eskualduna” astekariaren gizaldi gaztea (1877-1888)

Jean -Jon Casenave

► To cite this version:

Jean -Jon Casenave. ”Eskualduna” astekariaren gizaldi gaztea (1877-1888). Utriusque Vasconiae, 2005. <artxibo-00000045v2>

HAL Id: artxibo-00000045

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000045v2>

Submitted on 21 Dec 2005

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L’archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d’enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

BELAUNALDI LITERARIOAK

Eskualduna astekariaren « gizaldi gaztea » (1877-1888)

Sartzea :

Zer balio du gizaldi literarioen konzeptuak euskal kulturaren ulertzeko eta haren historiaren egiteko ? Galde horri erantzuteko, iparraldean izan ditugun belaunaldietarik menturaz ohargarriena aztertuko dut, hain zuzen *Eskualduna* astekarian, XX-garren mende hasieran idazten hasi dena. Baionako astekariaren bigarren belaunaldi edo “gizaldi gazte” hortan, J. Barbier, J. Etxepare, P. Lhande, J. Saint-Pierre, Oxobi edo Zerbitzari aurkitzen dira, hots, orduko idazleen artean, izen ezagunenak.

Lehen parte batean, gizaldi bat osatzen dutela ikusiko dugu. Adinaren kriterioa oinarritzat hartuz, azpimarratuko dut ezaugarri frango partekatzen dutela elgarren artean, formakuntza eta maisuak, lehen idazgaiak, hizkuntza eredu berdina, besteak beste. Denbora berean, ohartuko gara salbuespen bat edo beste izanen dela beti gure zerrendan, nahiz ez den aldi oroz jende bera besteetarik berex agertzen dena.

Bigarren parte batean, “belaunaldi literarioak” sintagmaren bigarren parteaz aztertuko dut beti jende eta adibide berdinekin. Gizaldi bat osatzen dutela elgarren artean ikusi ondoren, ikertuko dugu zer zuten elgar partekatzen literaturaren aldetik. Aukera estetiko batzu, mugimendu edo eskola bat osatu izan balute bezala ? Edo, molde umilago batez, zenbait argitalpen baita ere beren artean harreman sozial soil batzu ? Alde hortarik, Pierre Bourdieu¹, Pascale Casanova², Joan-Mari Torrealdai³ ikerketen ondotik, eremu eta pratika literarioen konzeptualizazio orokor bat behar genuke abiatu XIX eta XX-garren mendeen arteko junta horri buruz. Ene egungo gogoeta murriztagoa izanen da baina, literaturaren historia eta soziologiaren bide hortarik doa.

1. *Eskualduna* astekariaren gizaldi bat osatzen :

1.1. Gizaldi berria mindegian sortzen :

XX-garren mende hastapenean, *Eskualduna* astekariaren baitan eta inguru hurbilean gizaldi literario bat osatu da. Alde hortarik erran daiteke kazeta mindegi bat izan dela iparraldean, garai hartako idazle gehien gehienak haren baitan egin baitzituzten idazketarako ikasketak eta lehen probak. *Eskualduna* 1887-an jalgitzen da lehen aldirako. Louis Etcheverry diputatu gaiak plazaratzen du Baionan, hauteskundeetara bere kontra aurkeztu den Martial Berdoly-k, urte bat lehenago *Le Réveil basque* argitaratu baitu

¹ P. Bourdieu, *Les Règles de l'Art*, Ed. Seuil, 1992.

² P. Casanova, *La République mondiale des Lettres*, Ed. Seuil, 1999.

³ J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur*, Ed. Jakin, 1977 ; *Euskal Kultura gaur*, Ed. Jakin, 1997.

Pauen. Beraz, biek Euskal Herri barneko laborari boz emaileak hunkitu beharrez, tresna berri hori erabiltzen dute, bi hizkuntzetan (euskaraz eta frantsesez) ezartzen dutelarik. Etcheverry jabearen inguruan, idazle eta kazetarien artean, orduko euskalzale eta euskal gaietan adituak diren izen handi batzu aurkitzen dira : J.P. Duvoisin, E. Inchauspe, J. Hiriart-Urruty, A. Abbadie, Gratien eta Blaise Adéma, besteak beste.

Horiek lehen gizaldia osatzen dute, maisu edo sustatzaileena, baina euskal kazetaritzaren sortzaile historiko horien ondotik eta ildotik datozen idazleak nahi nituzke aipatu “belaunaldi literarioen” gaia barnatzeko gisa.

1.2. Aurkezpena : Nor dira ?

Adin bereko jendeek dute ontsalaz gizaldi bat osatzen. Baina, non gelditu behar da ? Zein da onar daitekeen arteka garaikide horien artean ? Komuzki, hamar bat – hamabost bat urte – gutti gora behera- kondatzen ahal da. Gisa hortan, ondoko hauek sar daitezke “*Eskualduna*-ren gizaldi ederrean“ :

- Jean Barbier (1875-1931)
- Jean Etchepare (1877-1935)
- Pierre Lhande (1877-1957)
- Jean Elissalde “Zerbitzari” (1883-1961)
- Jean Saint-Pierre (1884-1951)
- Jules Moulier “Oxobi” (1888-1958)

Jende horiek oro, *Eskualduna* astekarian idazten dute XX-garren mende hastapenetik hara. Ageri den bezala, orduko kolaboratzaileen artean idazle gisa ezagun bilakatu direnak baizik ez ditut altxatu. Ohartuko zarete ere, Oxobi sar arazten dudala zerrendan, Barbier baino hamahiru urtez gazteago izanik ere, baina Léon-Léon hazpandarra, 1896-an sortua (1896-1962) kanpo uzten dut eta Lafitte-kin batean (1901-1984) sailkatzeko. Eta era berean, Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) eta Pierre Broussain (1859-1920) aintzineko belaunaldian sartzen ditut, dudarik gabe, aipatu gogo dudan gizaldi hartako gazte gehien bultzatzaileak eta lehenarentzat bederen heien erakaslea izan baita Larresoroko seminarioan.

Periodizazio gai horri arrazoin bat gehiago emateko, oroit gaitezen Jean Etchepare-k Hiriart-Urruty, Abbadie eta Blaise Adéma idazkera mailan izan zituen maisuak bezala aurkeztu zituela⁴. Halaber, adinaren aldetik bere aintzinean zuen lehen gizaldian bilatu zituen maisutzat zeuzkanak P. Lafitte, batez ere Jean Saint-Pierre eta Jean Etchepare⁵.

1.3. Ezaugarri nagusiak : Zerk ditu elgar biltzen ?

1.3.1. Gaztaroa eta formakuntza :

Zerk ditu elgar biltzen ? Formakuntza eta ikas-etxea dudarik gabe, eta gehienentzat Larresoroko seminario tipia izan da. Lhande zerrendatik kenduz geroz, beste guziak Larresorotik pasatu dira eta erakasle berak ukan dituzte. Eta lehenago erran bezala, horietarik batzu maisuak izan dira idazle gaietzat.

Zergatik ez has etxetik, familiarik edo klase sozialetik aztertzeko zer duten elgar ikusteko ? Preseski, egoera sozio ekonomikoaren aldetik, ez dira denak leku beretik heldu. Lhande –familia pobreturik ere- Zalgizeko Appathia jauregian altxatua izan da ; J. Etchepare-

⁴ Ikus Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, « Euskal gaiak » : Hiriart-Urruty kalonjea, Arnaud Abbadie kalonjea, Jean-Blaise Adéma.

⁵ P. Lafitte, « Notre Maître : M. le Dr Etchepare », Gure Herria, 1932.

ren burasoak Ameriketarik etorri ziren Lekornera seme gehienak sei urte eterdi zituelarik, beraz, Amerikano baten semea zen egoera horrek ekartzen zituen errextasun guziekin, eta beste bat hartzekotan, aipa dezagun Oxobi ; hura, guarda baten semea zen eta ondorioz, molde xumeago batez bizi zen. Beraz, ez dugu hortan kriterio bateratzailerik. Halarik ere, Euskal herri barneko herri eta hiri ttipi horietarik heldu ziren gehienak, eta laborariek zuten bizi molde tradizionalari atxikimendu ber bera erakutsi dute, ñabardura zenbaitekin eta batzuetan arrazoin desberdinengatik.

Ikasketarik landa gizartean beteko duten funtzioaren aldetik ere dira itxura berekoak jende horiek : Barbier, Saint-Pierre, Oxobi eta Elissalde, seminario handira joaten dira Larresorotik jalgitzean eta apezten dira. Lhande, Baionatik kanporatua da eta, Rodez-en Jesusen lagundian sartuko da : ondorioz, Holandan, Ingalaterran, Españan gaindi ibiltzen da bere ikasteketen egiteko eta, dudarik gabe, besteei falta zitzairen idekidura bat aurkituko du bizi hortan. 1910-an apezten da hura ere. Beraz, gehienak Elizaren baitan egin dute beren bizia, Jean Etchepare kanpo utzi eta, hura mediku izan baita.

1.4. Bultzatzaile eta sortzaile :

Gaztarotik eta formakuntza garai hortarik jalgi eta, benetazko gizaldi bat bezala, elgarrekin, ari izan dira lanean jende horiek, bai *Eskualduna* astekariaren bizi arazteko, *Eskualzaleen Biltzar*-rean edo, lehen gerlatik landa, *Gure Herria* aldizkariaren sortzeko. Hots, elgarren artean bildu dira urteetan zehar, euskal kultura mailan gauzen bultzatze edo sortzeko.

1.4.1. Eskualduna :

Eskualduna kazetari esker beren lehen probak egin dituzte idazkera mailan. Jean Hiriart-Urruty-k, erakasle gisa luma trebeenak berehala begistatzen zituen seminario ttipian eta, ondotik bere astekariarentzat behar zituen berriketariak ikasle ohien artean hautatzen zituen ardura. Hala egin zuen adibidez, Jean Etxepare medikuarekin, Aldudeko berri emaile bezala egon baita luzaz, bestalde egiten zituen kronikak aparte utzirik. *Eskualduna* kazetan argitaratu zituen *Buruchkak* deitu liburuan 1910-an bildu zituen prosazko testuak. Jean Barbier-ek ere, bere lehen olerkiak (Lore jokoetan saristatuak izan zirenak) kazeta hortan publikatu zituen eta urteetan zehar, ipuinak emanen ditu hortan baita ere berantago *Piarres* eleberraren parte bat zatika, « feuilleton » gisa. Lhande-k ere gauza bera egiten du *L'Emigration basque* (1910) saiakerarekin. Oroitu behar da ere, sortzaile historikoen belaunaldia desagertu eta, Hamalauko gerlatik itzuli ondoan, jende horiek dituzte beren gain hartuko *Eskualduna*-ren segida eta geroa, hala nola Jean Saint-Pierre-k kazetaren kudeantza.

1.4.2. Eskualzaleen biltzarra :

1902-an sortu zen –nekez sortu J. Etxepare-n arabera- Hondarribian, *Eskualzaleen biltzarra*. Gora behera frango ezagutu ditu Hamalauko gerla baino lehen, bainan, ez da sekulan bilakatu sortzaileek amesten zuten instituzio bateratzaile indartsua. *Euskaltzaindia*-ren sortzea igurikatu behar da, 1919-an eta 1920-an, akademia baten ikusteko euskarareen alorrean. Halarik ere, euskalzale gisa, Etxepare, Saint-Pierre eta besteek instituzio ahula sustengatzen dute. Gerlatik itzuli eta, 1922-an hain zuzen, Jean Etxepare-k, *Eskualzaleen biltzarra*-ren lehendakaritza hartzen du eta, berrikuntza asko proposatzen ditu bizi kultural baten sortzeko euskararen inguruan. Decrept president ohiaren ideiak berrituz hartuz eta barnatuz, eskoletako ikasleen artean lehiaketa batzu antolatu ditu, baita ere seminaristen artean. Funtsean horrela ezagutu du ondoko urteetan adiskide handi beharra zuen Piarres

Lafitte. Hots, jende horiek indarrak neurtu gabe, gogo eta fede onez ari izan dira orduko euskal kultura sustatzen eta aintzina bultzatzen.

1.4.2. Gure Herria :

Eremu kultural hortan, sortzaile izan dira ere garai berean. *Eskualduna* astekaria desagertzetik begiratu eta, *Gure Herria* aldizkaria sortu dute 1921-an. Jean Saint-Pierre-k eta Jean Barbier-k uste zuten entrebaleko tresna bat falta zela euskal kultura mailan. *Eskualduna* kazeta, denentzat egina zen, erran nahi baita, berri emaila gisa ez ziela sorkuntzari edo euskal gaiei toki handiegia emaiten ahal. Kulturaren beste muturrean, *Riev* deitzen zen goi maileko agerkari zientifikoa bazen; hortan, euskarari buruz edo euskal literaturaren gainean egiten ziren aurkikuntzak edo ikerketak emaiten ziren gehienetan erdaraz, euskal gaien saileko orduko adituen artean zabaltzen baitzen, Europa mailan. Hots, bi aldizkari guziz desberdin horien artean, hilabetekari kultural baten beharra bazela uste zuten gure gizaldiaren idazle gehienek eta, abantxu bigarren munduko gerla arte, *Gure Herria* argitaratu dute kulturaren alde gehienei toki bat eginez.

1.5. Hizkuntza literario baten garatzaileak :

Orain arte ikusi dugu elgarrekin ari izan direla lanean euskal kultura mailan gauzen sortzeko edo bultzatzeko. Bainan, idazle ziren ber, hizkuntza mailan ere zerbait ekarri dute elgarren artean, hizkuntz eredu bat hain zuzen.

1.5.1. *Eskualduna*-ren hizkuntz eredu :

Zein da hizkuntz eredu hori ? *Eskualduna* astekariak urteetan zehar landu eta zabaldu duena hain zuzen⁶ :

“Aussi la lecture du journal *Eskualduna*, de la revue *Gure Herria*, ou des œuvres de Abbadie, Barbier, Etchepare, Apesteguy, etc. révèle-t-elle la naissance d’une langue littéraire commune à presque tout le Pays basque continental, et que l’on pourrait appeler « néo-labourdine », ou plus précisément « navarro-labourdine ».

Grammaire basque, 1934

Ortografiaren aldetik gauzak berehala argitzen dira iturrietara joanez. Aski fite, grafia finkatu bat erabiltzen dute eta, bortxaz ala gogo onez, astekarian idazten hasten diren jende berriek ortografia bera erabiltzen dute –salbu xibereraz idazten dutenentzat-. Eta liburu baten egitera ausartzen direlarik, eredu ortografiko bera erabiltzen dute, hor dugu lekuko J.Etxepare, *Buruchkak* jalgitzen duelarik, 1910-ean. Bainan, gauza jakina da J. Hiriart-Urruty frango kilika zela euskarari buruz eta hura zela nagusia *Eskualduna*-ren kofoin-ean. Hizkuntza nahi zuen egin ahala irakur-errexak denek ulertzeko gisan, ez sobera nahasia ez eta ere garbiegia. Haren lan-metodologiari buruz Lafitte-k kondatzen zituen anekdotak⁷ ezagunak dira, hala nola idazteko nekeak zituelarik, karrikara jausten zela merkatuko jendeen artean murgiltzeko beharria euskararen mamiaz bete beharrez. Bestalde, Broussain-ek kondatzen zuen jendeek igorritako artikulak gain behera berrituz antolatzen zituela baita ere berrituz idazten, hizkuntzari berak gisa zeukan euskarazko itzulia eman nahiz.

Larderia handiko maisu horrekin ikasi dute idazten Barbier-k, Etxepare-k, Oxobi-k eta besteek. Gorago aipatu bezala, Jean Etxepare-k omenaldi batzutan erran du zenbatetaraino miretsi dituen J. Hiriart-Urruty, Arnaud Abadie eta Blaise Adéma, astekariaren sortzaile historikoen idazteko moldea.

⁶ P. Lafitte, *Grammaire du Navarro-labourdin littéraire*, 1934.

⁷ P. Lafitte, « Jean Hiriart-Urruty », in P. Urkizu-ren edizioan, *Euskal literaturaz*, Ed. Klasikoak, 1990.

1.5.2. Euskaltzaindian :

Aipatu ditugun jende horiek aurkitzen ditugu ere *Euskaltzaindia*-ren lehen urteetan. Pierre Lhande, 1919-an eta 1920-an Hernani-n bizi zen eta ez badugu sortzaileen arteko lehen bilkuretan aurkitzen, 1920-etik goiti, euskaltzain oso bezala agertzen da xiberera euskalkiaren aditu gisa. Bestalde, *Euskera*, *Euskaltzaindia*-ren agerkiariaren lehen idazkaria izan da, lehen bi urteetan. Etxepare ez da euskaltzain oso izan, urgazle bezala izendatua izan da. Bainan, gizaldi bereko beste gehienak, Oxobi, Elissalde eta Jean Saint-Pierre, hastapenean kritiko izanik ere (Oxobi eta Elissalde batez ere), *Euskaltzaindia*-n sartzen dira, bakoitza bere aldian. Salbuespen bat behar baita beti : aldi hontan Jean Barbier izanen da.

Euskaltzaindia-ren lanetan parte hartzeak erran nahi du batez ere, denek ikusten zutela gogoeta baten beharra hizkuntzari buruz, baita ere euskalkien gainean. Sail hortan ere, adin bereko jende horiek norabide berdina hautatu dute elgarrekin.

2. Gizaldi literario bat ote ?

2.1. Idazle talde baten argitalpenak :

Aipatzen dugun idazle multxo horrek hainbat testu eta liburu argitaratu du :

Jean Barbier-ek, kantuak, kantikak eta Elizako liburua argitaratu ditu eta bestalde hiru liburu, ipuin bilduma bat (*Supazter xokoan* -1924), eleberri bat bi partetan (*Piarres*, 1926-1929) eta ipuin bilketa bat (*Légendes du Pays basque d'après la tradition* – 1931- erdaraz eta euskaraz).

Jean Etxepare-k, artikulu ainitz baditu eginik *Eskualduna* astekariaren eta *Gure Herria*-n, azken urte hauetan Piarres Charritton-ek bost liburuki loditan⁸ bildu ditu. Bi liburu argitaratu ditu : *Buruchkak* (1910) eta *Beribilez* (1931).

Jean Saint-Pierre-k artikulu frango badu eginik bere bizi guzian, literaturari buruz eta hizkuntza sailan ere. Bainan ez du libururik ateratu. Hura hil eta, Piarres Lafitte-k testu horien hautaketa bat eskaini du « Les Meilleures pages de Monseigneur Saint-Pierre » deitu liburuan. Geroztik, P. Charritton-ek beste testu bilduma bar argitaratu du, Gerla Handiaren denborako kronikak biltzen dituen⁹.

Jules Moulier « Oxobi »-k artikuluak egin ditu *Eskualduna* kazetan eta *Gure Herria* aldizkarian. Bestalde, bost liburutto argitaratu ditu, gehienak neurtitzetan eta ezagunenak dira, dudarik gabe, haren *Alegiak* (1926). Horiek oro bilduak izan dira geroztik liburu batean¹⁰.

Jean Elissalde « Zerbitzari » idazleak bost liburu argitaratu ditu ; biga elizako liburuak dira eta itzulpenak. Dourisboure euskal misionestaren liburua itzuli du euskarara, *Bahnar deithu Salbaiak* (1936). Haren idazlana ezagutuena bilketa bat izan da, *Atsotitz, zuhurhitz eta erran zahar* (1936).

Bainan, gizaldi horren jendeen artean, idazle emankorrena Pierre Lhande izan da. Berrogoi bat liburu ba du eginik, gizaldi bereko euskal idazle gehienek ez bezala gehien gehienak erdaraz. Bospasei badira euskal gaiei buruz eginak ; hiru saiakera : *Autour d'un foyer basque* (1908), *L'Emigration basque* (1910), *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1923) ; hiru eleberri : *Mirentchu* (1914), *Yolanda* erdaraz (1920) *Yolanda*

⁸ P. Charritton-ek paratua., *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak*, Ed. Elkar, 1984-1996.

⁹ P. Charritton-ek paratua., Jean Saint-Pierre « Anxuberro », *14-eko Gerla Handia*, Ed. Klasikoak, 1998.

¹⁰ A. Beola-ren edizioan, Jules Moulier « Oxobi », *Alegiak eta poemak*, Ed. Klasikoak, 1992.

euskaraz (1921), *Bilbilis* (1925). Bestalde, ainitz artikulu egin du eta horietarik zenbait, euskal literaturaren historia mailan. Hori guzia ahanzi gabe haren hiztegia, Lafitte-k osatu eta bukatu zuena. Orroitarazi behar ere, Pierre Lhande idazle ezaguna izan dela Frantzia mailan. Haren eleberriek arrakasta gaitza ukan dute, bai irkurleagoaren aldetik baita ere kritikari begira. Erabat ahantzia baldin bada ere, bere garaian norbait izan da Lhande, predikari gisa eta idazle bezala ; argitaletxe handi batzuetan publikatu zuen : Plon, Beauchesne, etb.

2.2. Ezaugarri estetikoak ?

Ageri den bezala, iparralde mailan, aintzinekoek baino aise gehiago argitaratu dute jende horiek. Bizkitartean, ez da erraiten ahal ezaugarri bateratzaile handirik aurki daitekeenik obra horien artean. Hasteko, argi da ez dela idazlan horien artean ezaugarri garbirik estetika eta poetika mailan. Lhande-k saiekera eta eleberria lantzen ditu batean, bainan hark erdaraz idazten du gehien bat, eta euskaraz egiten duela irkurleagoaren aldetik baita ere kritikari begira. Erabat ahantzia baldin bada ere, bere garaian norbait izan da Lhande, predikari gisa eta idazle bezala ; argitaletxe handi batzuetan publikatu zuen : Plon, Beauchesne, etb.

Jean Barbier-en obran, kondaketa (diskurtso narratiboa) da menturaz alde interesgarriena, ipuinetan eleberrian bezala, kondaketa fikzioaren behar eta arauak plegatzen baitu. Bainan, zoritxarrez ekintzari baino karakter edo pertsonaiei ematen die lehentasuna eta haien eredugarritasunari hobeki errateko, harentzat morala giristinoaren eredu delarik eredugarriena. Horrela eginez, fikzioari egitasuna eta sinesgarritasuna gal arazten dizkio, Etxepare-k *Piarres* eleberriari buruzko kritika batean leporatu zion bezala.

Azken adibidearen aipatzeko, erran daiteke literatura dela hein handi batean helburu nagusia Etxepare-ren liburuetan. Bainan, *Buruxkak* banatetik gelditu behar izan du saltzen hasi orduko eta *Beribilez* bidai liburuarentzat, gehienek –Lafitte ez bada- harek egin gogo zuenaren orde, beste zerbait irakurri zuten, hitz batez erraiteko Euskal Herriaren gaindi autoan egindako itzuli goxo bat, besterik ez.

Bururatzeko, ez da erraten ahal belaualdi horren konzientzia literarioa ezaugarri estetikoetan bilatu behar denik. Ene konklusio ezkorari ñabardura zerbait ekartzeko, kasu bakar bat aipa dezaket : hain zuzen jende horiek gerlaren gainean idatzi dutena. Saint-Pierre-k, Etxepare-k, Elissalde-k eta Barbier-k gerla aipatu dute, izan dadin *Eskualduna* astekarian agertu kroniketan lehen biontzat, agerkeri berean bainan denboraren buruan argitaratu orroitzapenetan Elissalde-ntzat edo *Piarres* eleberrian Barbier-entzat. Hain segur, gehienek hamalaueko gerlan izigarrikeriak ikusi baitzituzten, denen artean batasun estetiko bat aurkitzen dute gai hortan, egitasun eta sinesgarritasun mailan bereziki. Bainan, nik uste, kasu bakarra da.

2.3. Literaturaren konzientzia :

Ez badute literaturaren konzientzia bera ez eta ere beren artean landutako estetika berdina elgarren artean partekatzen, erran daiteke halere, denek badutela - bakoitza bere heinean- literaturaren konzientzia. Lehen, euskara mailan estandar literario berdintsua erabiltzen zutela erran dugu. Hortan batasun zerbait kausitu dute,

dudarik gabe eta ez da gehiago ikusten XIX-garren mende ondarrean idazkeren arteko diferentzia edo desmaila nabariak gehiago ikusten –adibidez, Michel Elissamburu eta Jean.Pierre Arbelbide-n artean.

Bainan, beste ezaugarri batzu azpimarratu nahi nituzke. Lehenik, literaturaren historiari abiatze bat emaiten diote iparraldeko zenbait idazlek garai hartan eta denak *Eskualduna*-ren bigarren gizaldi hortakoak dira. Etxepare-k, lehengo idazleen gordeleku¹¹ edo Panthéon gisako zerbait egin gogo du, bere maisuei buruz (Hiriart-Urruty, Abbadie, Adéma osaba-ilobak aipatzen dituelarik. Ezaugarriak estilo mailan finkatzen ditu batez ere, « hizkuntza literario » baten inguruak marrazten ditu pasatzean eta eredu horren oinarritzeko, Duvoisin edo Axular eratzikitzen dizkie. Gainera, Eskualzaleen lehendakari gisa, omenaldiak antolatzen ditu Chourio edo Leizarraga-ren ohoretan orroitu harri batzu ezar araziz edo gogoeta egunak antolatuz, Saran Axularri buruz adibidez.

Gisa berean, kritika literario baten lehen urratsak egiten ditu ere, Barbier, Elissalde, Agirre edo Oxobi-ren liburuak aipatzen dituelarik bere aste guzietako kronikan, *Eskualduna* astekarian¹². Aipamen horietan ez da argitalpenen abisu hutsean gelditzen, mamia eta idazmoldea ere hurbiletik aztertzen ditu, hala nola Barbier-i sinesgarritasun falta leporatzen diolarik *Piarres* eleberrian aurkitzen diren bazterren deskribapenetan. Holako, idazlanetan, ez da dudarik literaturaren konzientzia aurki daitekeela.

Bainan, euskal literaturaren historia bidean jartzearen beharra hobekienik dakusena Pierre Lhande da, dudarik gabe. Harek, *Etudes* Jesuisten agerkariaren kudeantza hartuko du zenbait urte geroxago, kritika literarioa sailean preseski, bainan, Euskal Herrian bizi denean oraindik, hots gerla handitik landa hiruzpalau urtez, urrats handi bat egiten du norabide hortan. *RIEV* eta *Gure Herria* aldizkarietan, funtsezko artikulu batzu publikatzen ditu euskal idazleei buruz : Etxahun-Barkoxe¹³, Domingo Agirre¹⁴ aztertzen ditu besteak beste, korpus bat finkatu beharrez. Era berean, klasikoen Panthéon baten beharra ere ikusten eta aipatzen du, bere moldean *Le Pays basque à vol d'oiseau* deitu liburuan.

Besteak, egia erran ez dira lehen bi horiek bezain aintzinatua edo ez hain ausartak eta hizkuntza mailan gelditzen dira gehienetan ; Oxobi eta Elissalde-n kasua da adibidez. Pundu honekin bukatzeko, erran dezagun beraz, eremu literario baten konzientzia edo beharra bazela gizaldi horren partaideen artean bainan, ez zen denentzat mail berean.

2.4. Sorkuntzaren mugimendu konplexua :

2.4.1. Barneko dinamika.

Orain, literaturen kezkarekin segitzeko, beste alde bat nahi nuke aipatu. Jende horietarik batzu, sorkuntzan ari izan dira ; hiru lagun batez ere : Barbier, Etxepare eta Lhande. Bururatzeko, azter dezagun nondik heldu zitzaaien inspirazioa, non zituzten iturriak eta aipagaiak. Hiruek, euskal gaiak erabili dituzte beren sorkuntza lanetan, bakoitza bere moldean. Lehen ikusi dugun bezala, Lhande-k beste gai mota frango landu du bere eleberri eta saiakeretan bainan, *Autour d'un foyer basque*, *L'Emigration basque*, *Mirentchu*, *Yolanda* eta *Bilbilis* deitu liburuetan euskal gaiak barnatu ditu.

¹¹ Ikus « Euskal Gaiak » antologian aurkitzen diren hainbat artikulu. *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak*, Ed. Elkar, 1984

¹² Ikus « Euskal Gaiak ».

¹³ P. Lhande, « Le barde Etchahoun », *Gure Herria*, 1923.

¹⁴ P. Lhande, « Domingo Agirre », *Revue internationale d'Etudes basques*, 1920.

Etxepare-k, jadanik aipatu ditugun *Buruchkak* eta *Beribilez* obretan eta Barbier-k *Supazter chokoan* eta *Piarres* kondaketetan.

Iparraldean, haiek diote funtsezko bultzada ematen « euskal gaien » sailari, prosa mailan. XIX-garren mendean, Agosti Xaho-k eman zien lehen abiatzea bere liburuetan *Voyage en Navarre* (1836) eta *Biarritz, entre les Pyrénées et l'Océan* (1855). Ondotik zenbait liburu izan ziren ildo beretik hala nola Pierre Harispe-n *Ainhoa* 1893-an, « roman de mœurs basques » berak deitu zuena azpi titulu batean. *Atheka gaitzeko oihartzunak* ere hor ditugu, baina, horiek erdaraz eginak izan dira eta funtzio berezi batekin plazaratuak, ez ditugu hemen aztertuko.

Euskal gaien lantzeko gogoia euskal kulturaren baitako dinamikatik heldu zitzaion dudarik gabe. Inguruko egoera erakargarria zen: Abbadie-k kudeatutako pestek eta Lore jokoek ezagutza publikoa eman zioten euskal kulturari baita ere sorkuntza literario mota bati, ez erabat herrikoa, ez eta ere kultuegia. Kanpoko eta bertako jakintsunen lanek ere kultura argitan ezarri zuten, hizkuntzaren berezitasuna batez ere. Eta, nortasunari buruzko gogoia eta eztabaiden egiteko parada asko izan zen, hala nola 1897-an Donibane Lohitzune-n ospatu zen kongresuan¹⁵ edo, bestenaz *Eskualduna* astekarian, Frantses Gobernua eta Elizaren arteko gora beheren kariatzen adibidez.

2.4.2. Kanpoko eragina : ispilua eta kontra ereduak.

Bainan Euskal Gaien moda edo arrakasta kanpotik heldu zen ere. Ez naiz gai hortan luzatuko, jadanik aipatua baitut bestalde¹⁶; doi doia orroitz araz dezadan *Ramuntcho* Pierre Loti-ren eleberriak ukan zuela aipamen nasaia, Euskal Herrian berean baita ere hemendik kanpo, idazlearen ospearengatik, XX-garren mende hastapen hastapenean. Anatole Le Braz¹⁷ garai hartako kritikari eta ikerle ezagunak erran zuen orduan Euskal Herria sartzen zela literaturaren eremuan eleberri horri esker. Eta Loti-ren ondotik, frantsesez idazten zuten eleberrigile frangok « Euskal Herri »-aren gaia erabili dute, izan daitezen frantzia mailan ezagunak Francis Jammes¹⁸ bezala ala hemen gaindi bakarrik preziatuak Mayi Elissague¹⁹ edo Augustin Fourcade-n²⁰ gisa.

Bainan, orduko euskal autoreentzat, Barbier eta beste euskal idazle garaikideentzat, garrantzi handikoa izan zen abiatze hori, hari esker ohartu baitziren begien bistan zuten eskualde eta jende horiek gai literarioak izan zaitezkeela. Dakizuen bezala, bakoitzak bere moldean erabiliko du gaia, eraginak ondorio desberdinak ukan baitu norberaren nortasunaren arabera. Lhande-ntzat Loti aurkako edo lehiakide bat izan da; Barbier-rentzat aldiz eredu bat eta Etxepare-k erreferentzia bezala erabili du *Ramuntcho* testu artekotasun erakargarri baten sortzeko, « Pilota partida »²¹ deitu kondaketan adibidez. Beraz, hiruek ez badituzte euskal gaiak molde berean landu, ez da dudarik hiruek gai nagusi gisa erabili dituztela.

¹⁵ Ikus jardunaldi horietan eman ziren mintzaldiak in *La Tradition basque* (1901), Ed. Elkar, 1994.

¹⁶ J. Casenave, « *Ramuntcho* : Pierre Loti-ren sartzera Euskal Herrian » IKER 14 (II), Ed. Euskaltzaindia, 2003.

¹⁷ A. Le Braz, *Ramuntcho*-ren aurkezpena, *Le Journal des Débats* agerkarian, 1897.

¹⁸ F. Jammes, « Le Mariage basque » in *Cloches pour deux mariages*, 1923 ; *Les Robinsons basques*, 1924.

¹⁹ P. Apesteguy, *Gachucha*, 1934.

²⁰ A. Fourcade, *La Nuit étoilée*, 1922.

²¹ J. Etxepare, « Pilota partida » in *Buruchkak*, 1910.

Bururatzeko :

Nahiz ez den erraten ahal « belaunaldi literario » bat osatzen zutela, Emile Zola-ren inguruan idazle naturaliste-k bere afari famatueta talde bat egiten zuten bezala edo Surrealistek Breton-en itzulian ezaugarri asko partekatzen zuten elgarren artean. Beraz, ez da erraten ahal *Eskualduna*-ren bigarren gizaldi gazte horrek « belaunaldi literario » bat osatzen duenik, Zola-ren inguruan naturalistek egin zuten bezala XIX-garren mende ondarrean. Ez da erraten ahal ere estrategia bat muntatu zutenik Ramuz eta « Les Cahiers Vaudois »-ko idazle suizarren gisa, gerla handiaren bezperan bildu zirenean, « Raison d'être » testu programatikoaren inguruan bertako edo tokiko literatura sail baten sortzeko eta bultzatzeko²².

Sail hortan, hein bereko konpara gaiak konparatu behar dira eta Joan-Mari Torrealdei-ek bere lanetan erakutsi duen bezala, euskal eremua ez zen auzoan ziren frantses edo espagnol eremuen gisa ez garatua ez eta ere autonomizatua. Eremu literarioa baino, eremu kulturala –literarioa barne- landu dute, eta « gizaldi literarioa » baino “gizaldi kulturala” behar genuke aipatu *Eskualduna*-ren inguruan sortu eta handitu den belaunaldi horrentzat. *Gure Herria* aldizkariari esker eta argitaratu dituzten liburuen bitartez, bizi kultural bat sortu dute euskaraz « Euskal gaien » inguruan.

²² C.F. Ramuz, *Raison d'être*, Cahiers Vaudois, 1914.